

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Bilbao Bizkaia Museoak, SL**

**2016**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Langileria.....	9
III.2 Kontratazioa.....	9
III.3 Gardentasuna eta bestelako alderdiak.....	11
IV. URTEKO KONTUAK.....	12
ERANSKINAK.....	13
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera.....	13
A.2 Ibilgetua.....	13
A.3 Funts propioak eta atal lotesleekiko zorrak.....	14
A.4 Diru-laguntzak, dohaintzak eta bestelako legatuak.....	15
A.5 Ustiapen sarrerak.....	15
A.6 Langileria-gastuak.....	16
A.7 Ustiapen gastuak eta kontratazio analisiak.....	17
ALEGAZIOAK.....	19
ABREVIATURAS.....	23
I. INTRODUCCIÓN.....	25
II. OPINIÓN.....	26
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	26
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	26
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	27
III.1 Personal.....	27



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

III.2	Contratación .....	27
III.3	Transparencia y otros aspectos .....	29
<b>IV.</b>	<b>CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>30</b>
	<b>ANEXOS .....</b>	<b>31</b>
A.1	Naturaleza del ente fiscalizado.....	31
A.2	Inmovilizado .....	31
A.3	Fondos propios y deudas con partes vinculantes .....	32
A.4	Subvenciones, donaciones y otros legados recibidos .....	33
A.5	Ingresos de explotación .....	33
A.6	Gastos de personal .....	34
A.7	Gastos de explotación y análisis de contratación .....	35
	<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>37</b>

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 24a  
Vitoria-Gasteiz, 24 de mayo de 2018



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
KBA	Kontrataziorako barneko aginpideak.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Bilbao Bizkaia Museoak, SLren 2016ko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

2016ko ekitaldiko Urteko Kontuak Bilbao Bizkaia Museoak, SLko Akziodunen Batzar Nagusiak onartu ditu 2017ko apirilaren 27an.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Ezargarria den araudia bete dela egiaztatzea langileria, obren kontratazio, zerbitzu eta hornidura gaitan. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea. Gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostena aztertzea izan da eta horretarako, egoki iriztitako proba osagarriak eta auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi dela ere, fiskalizazioan zehar sortu diren akatsak Txosten honetako III. idazpuruan daude jasoa.

Bilbao Bizkaia Museoak, SL 2013ko abenduaren 24an sortu zuten Bilboko Udalak eta BFAk, zati berdinetan harpidetutako 3.000 euroren kapital sozialarekin. Sozietate berri hau Bilboko Euskal Museoa eta Bilboko Berreginen Museoa erakundeen jarraipena da, biak ala biak 2014ko ekainaren 30ean desegindakoak; honela, bada, data horretatik aurrera zerbitzu publikoari lotu gabeko ondare-ondasunak, eskubide eta obligazioak eta Museoetako langileria subrogazio bidez Bilbao Bizkaia Museoak, SLren atal izatera aldatu dira. Zerbitzu publikoari lotutako ondare-ondasunei dagokienez (museoetako bildumak eta horiek biltzen dituzten eraikinak) Bilboko Udalak eta BFAk 2015eko uztailean erabaki zuten Bilbao Bizkaia Museoak, SLri ekarpena egitea 2030eko abenduaren 31ra arteko gozamen-eskubide baten bidez.

Sozietatearen jarduera nagusia sortzetik Euskal Museoa eta Berreginen Museoa kudeatu, sustatu eta eustea izan da, tutoretzapean zaintzan dituen funtsen erosketa, zaintza, inbentario, katalogazio, ikerketa, zaharberritze eta erakusketa ordenatu bidez. Jarduera hau guztia, ia osotasunean, Bilboko Udalak eta BFAk emandako kopuru bereko diru-laguntzekin finantzatzen da, nork bere urteko aurrekontuetan egindako zuzkidura bidez.

Administrazio-kontseilua 6 kidek osatzen dute, Sozietatearen jabe den administrazio publiko bakoitza % 50ean ordezkatzen dutenak. Organo honen Lehendakaritza eta Lehendakariordetza txandan-txandan, bi urteko aldietan, Bilboko Udalaren ordezkariek (egun Kultura Alorreko zinegotzi ordezkarria) eta BFArenak (Euskara eta Kultura saileko foru diputatu titularra) betetzen dute.

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### LANGILERIA (ikus A.6)

1. Berariaz gaitutako kanpoko enpresa batek 2016ko ekitaldian lanpostu bat izaera mugagabearekin zuzkitzeko egindako hautaketa euskarritzen duen eskurako dokumentazioak ez du egiaztatzen uzten berdintasun eta merezimendu printzipioak bete diren.

#### KONTRATAZIOA (ikus A.7)

2. Laguntza emateko langile laguntzaileen zerbitzu-kontratua 2014ko urrian esleitu zen 90.908 euroren zenbatekoan, urtebeterako eta beste urte betez luzagarria; egikaritzaren hasiera-hasieratik luzatu zen kontratua, aldatzeko nahitaezko izapidea bideratu gabe, 2016ko ekitaldiko egikaritzak 114.120 euro eginez; horrek esleipen-prezioaren gainean % 25,5eko igoera dakar. Administrazioako kontratazioan buru egiten duten printzipioak urratu dira, kontratuaren egikaritzak prozedura harmonizatu bidez izapidetzea bereizten duen atalasea gainditu duelarik.

Epaitegi honen iritzira, Bilbao Bizkaia Museoak, SLk, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bilbao Bizkaia Museoak, SLren 2016ko ekitaldiko Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.





### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 LANGILERIA

- 2014-2015 aldirako Bilbao Bizkaia Museoa, SLko langileentzako onartutako hitzarmen kolektiboa, zuzenean 2016ko ekitaldian luzatutakoa, ez da Euskal Herriko Lan hitzarmenen eta akordio kolektiboen erregistroan gordailatu eta dagokion moduan argitaratu BAOn, nahiz izen-ematea eskatu eta izapidetu zen.
- Sozietateak 2016ko ekitaldian produktibitate-osagarri bat ordaindu die langileei, osagai finko batez eta beste osagai aldakor batez osatua, lanaldiaren egiazko denboraren arabera. Produktibitate-osagarria baliatu behar litzateke langile bakoitzak agindutako egitekoetan izan duen errendimendu, interes edo ekimen berezia ordaintzeko, osagarri finkoan baliatzen ez den inguruabarra (250 euro langileko) (ikus A.6).

#### III.2 KONTRATAZIOA

##### Irizpen orokorrak

- 2013ko abenduan lizitazioak eta horien emaitzak Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataforman argitara emateko obligazioa indarrean sartu zen, bai zuzenean bai bertako plataformarekiko lotura bidez; lan hau egin dugun datan, baina, Bilbao Bizkaia Museoa, SLk ez du betekizun hori bete.
- Sozietateak ez ditu 2016ko abenduaren 31n onartu kontratatzen dituen kanpoko zerbitzuak zuzen egikaritzeko izapideak, erakundearen eta kontratatu diren enpresetako langileen arteko harremana argi gera dadin; guztiz gomendagarria da honakoa birkontratutako zerbitzuen zabala eta ezaugarriak aintzat hartuta.

##### Aztertutako espedienteak

2016an egikaritutako 4 kontratazio espediente aztertu ditugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu (ikus A.7):

- Guztira 170.065 euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontratutan honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:
  - 3 kontratuetan prezioaren formula objektiboa eta publikoa den arren, murriztu egiten du hasiera batean aurreikusitako haztapena, izan ere gutxieneko puntuazioa ematen zaie lehiaketa aurrekontua berdintzen duten eskaintzei (2, 3 eta 4 espedienteak).



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- 49.183 euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean pleguek ez dituzte hobekuntzen irizpiderako balioztatu beharreko alderdiak aurreikusten, ez eta horiek balioztatzeke sistema ere (4. espedienteak).
- 90.908 euroan esleitutako kontratu batean antzeko ezaugarriak dituzten lanetan enpresa lehiatzaileen eskarmentua balioztatu da, ezaugarri hau, baina, kaudimen irizpide modura barne hartu behar litzateke (2. espedienteak).
- 90.908 euroan esleitutako zerbitzu-kontratu baten pleguek agintzen dute aurreko kontratistaren langileria subrogatu behar duela esleipendun berriak; ordea, betekizun hau enpresa eta langileen arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke (2. espedienteak).
- Guztira 170.065 euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontratutan eskaintza ekonomikoaren irekiera proposamen teknikoak ireki aurretik egiten da, kontratu horiek arautzen dituzten pleguek agintzen duten moduan. Alabaina, gomendagarria litzateke SPKLTBren 150.2 artikulua agintzen duen prozedura egokitzea, zeinaren arabera formula hutsak baliatuta kuantifikagarriak diren irizpideak balioztatzeke, alde aurretik balio-judizioari meneratzen zaizkion irizpideak balioztatu behar diren (2, 3 eta 4 zk. espedienteak).
- Guztira 170.065 euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontratuen lehiatzaileei igorritako esleipenaren jakinarazpenak ez ditu jasotzen onartutako lehiatzaile guztiek eskuratutako puntuazioak, ez eta esleipendunaren proposamena gainerako lehiatzaileen gainetik lehenetsunez hautatzeko zein izan diren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak ere (2, 3 eta 4 zk. espedienteak).
- Aztertu diren 4 kontratutan, 302.665 euroan esleitutakoetan, kontratuen luzapenak tazituak izan dira; ordea, kontratuetako pleguen eta Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera, kontratazio atalak onartu behar litzuzke (1, 2, 3 eta 4 zk. espedienteak).
- Guztira 223.508 euroren zenbatekoan esleitutako bi zerbitzu-kontratuk, zeinen indarraldia 2016ko abenduaren 31n eta azaroaren 30ean amaitu zen hurrenez hurren, hirugarren berarekin egikaritzen jarraitu dute eta horien lizitazioak ez dira 2017ko apirila arte argitara eman (1 eta 2 zk. espedienteak). Beharrezkoa da botere esleitzzaileek kontratazio prozedurak behar besteko aurrerapenez izapidetzea, aurreko kontratuen epemuga aintzat hartuta.

### Beste alderdi batzuk

- Administrazioiko kontrataziorik gabeko espedientearen gastua aztertu dugularik atzeman dugu 45.161 euroren fakturazioa izan duen argindarraren hornidura kontratu txikiaren prozedura baliatuta gauzatu dela; ordea, eskagarria zaio lehia printzipioa aplikatzea.



### III.3 GARDENTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Bilbao Bizkaia Museoa, SLren web-orriak ez du gardentasun ataririk, zeinetan urteko kontuak eta auditoria txostenak argitaratuko diren; baita bertako antolamoldeari buruzko informazioa ere, besarkatzen dituen organoen arduradunak identifikatuko dituen, eta administrazioko kontratazioari buruzkoa (gauzatutako kontratu bakoitzari dagokionez baliatutako prozedurei buruzko estatistika datuak, lehiatzaile kopurua eta esleipen hartzailearen identifikazioa, aldaketak, e.a.), hori guztia abenduaren 9ko 19/2013 Legeak agindutakoa betez, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### IV. URTEKO KONTUAK

EGOERAREN BALANTZEA 2016 eta 2015eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	ERANSKINA	31.12.16	(*) 31.12.15
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>		<b>7.403</b>	<b>7.633</b>
Ibilgetu ukiezina.....	A.2	6.739	6.963
Ibilgetu materiala.....	A.2	664	670
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>597</b>	<b>625</b>
Izakinak .....		31	31
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b. ....		91	142
Finantza inbertsioak e/lab.....		2	1
Aldizkakotzeak epe laburrera .....		7	8
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak .....		466	443
<b>AKTIBOA</b>		<b>8.000</b>	<b>8.258</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>7.657</b>	<b>7.888</b>
<b>Funts propioak</b>		<b>271</b>	<b>273</b>
Kapitala .....	A.3	3	3
Bazkideen beste ekarpen batzuk .....	A.3	276	276
Aurreko ekitaldietako ondorioak .....		(6)	(6)
Ekitaldiko emaitzak .....		(2)	-
<b>Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak</b>	A.4	<b>7.386</b>	<b>7.615</b>
<b>PASIBO EZ KORRONTEA</b>	A.3	<b>101</b>	<b>101</b>
<b>PASIBO KORRONTEA</b>		<b>242</b>	<b>269</b>
Zorrak epe laburrera .....		1	1
Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk.....		229	255
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		12	13
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		<b>8.000</b>	<b>8.258</b>

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

2016 eta 2015eko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2016	(*) 2015
Negozio zifraren zenbat. garbia .....	A.5	63	61
Hornidurak .....	A.7	(110)	(166)
Bestelako ustiaketa sarrerak .....	A.5	1.835	1.817
Langileria-gastuak .....	A.6	(1.105)	(1.168)
Bestelako ustiapen gastuak .....	A.7	(685)	(543)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	A.2	(330)	(319)
Ekit. soberakinera eskualdatutako kapitalezko diru-laguntzak .....	A.4	329	318
Beste emaitza batzuk .....		1	-
<b>USTIAPENAREN EMAITZAK</b>		<b>(2)</b>	<b>-</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>		<b>(2)</b>	<b>-</b>
Mozkinen gaineko zerga.....		-	-
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>(2)</b>	<b>-</b>

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.



## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA

Bilbao Bizkaia Museoak, SL kapital publikoko erantzukizun mugatuko sozietatea da, zuzenbide pribatuak arautzen duena, eta uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua zaio ezargarri, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onesten duena.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez sozietatea botere esleitzailer da, SPKLren 3.3 artikuluari jarraikiz.

SPKLTBren 20. artikulua araber, bere kontratuak pribatuak dira. SPKLTBren 190 eta 191. artikuluen araber, europar batasuneko gutxieneko mailak gainditzen dituzten kontratuak (erregulazio harmonizatuari meneratuak) prestatzeari eta esleipenari dagokionez, berariazko araurik ezean, SPKLTBk arautuko ditu indarrean sartzen denetik aurrera. Europar batasuneko gutxieneko maila horiek gainditzen ez dituzten haiek onartutako eta kontratatzailearen profilean argitaratutako kontrataziorako barne jarraibideak aplikatu beharko dituzte esleipenean. Kasu guztietan publikotasun, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta ez bazterkeria printzipioak gorde beharko dira.

Langileen kontratazioari dagokionez, erakunde publikoek partaideturiko sozietatea den aldetik, ezargarria den arautegian garatzen diren arbitrariotasunaren interdikzio, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago; honako hau da ezargarria zaion arautegia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; eta 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.

### A.2 IBILGETUA

2016ko ekitaldian ibilgetuko kontuen mugimendua honakoa izan da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SALDOA 16.1.1	ALTAK	AMORTIZ. 16.1.1	AMORTIZ. 2016	SALDO GARBIA 16.12.31
<b>IBILGETU UKIEZINA</b>	<b>7.229</b>	<b>2</b>	<b>(266)</b>	<b>(226)</b>	<b>6.739</b>
Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak..	7.143	-	(214)	(214)	6.715
Aplikazio informatikoak eta beste .....	86	2	(52)	(12)	24
<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>2.794</b>	<b>98</b>	<b>(2.124)</b>	<b>(104)</b>	<b>664</b>
Eraikuntzak.....	360	21	(32)	(11)	338
Instalazio teknikoak, tresneria eta best. instal.....	1.500	40	(1.247)	(71)	222
Altzariak .....	576	1	(564)	(4)	9
Informazio prozesuko ekipoak .....	208	2	(182)	(11)	17
Beste ibilgetu material bat.....	150	34	(99)	(7)	78
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.023</b>	<b>100</b>	<b>(2.390)</b>	<b>(330)</b>	<b>7.403</b>



Ibilgetu ukiezinean Bilboko Udalaren eta BFAREN jabetzako aktiboen gainean gozamen-eskubidearen balioa erregistratzen da, bi administrazioek Sozietate honi doan laga ziotenak 2014ko ekainaren 30etik 2030eko abenduaren 31ra arte. Ondasun horien xehapena, jabetzaren jabetza-ehunekoa eta gozamen-eskubidearen balioa honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	BFA	BILBOKO UDALA	HASIER. BALIOA
Euskal Museoaren eraikina .....	50%	50%	1.712
Bilboko Berreginen Museoaren eraikina.....	-	100%	1.382
Egoitza administratiboaren lokala .....	-	100%	333
Euskal Museoaren museoko bilduma.....	50%	50%	3.528
Bilboko Berreginen Museoaren museoko bilduma .....	50%	50%	188
<b>GUZTIRA</b>			<b>7.143</b>

Gozamen-eskubideari hasiera batean egotzitako balioaren gainean Sozietateak amortizazioa eraikinen gainean soilik zuzkitzen du, erabilera-eskubidearen iraupen urteen arabera.

### A.3 FUNTS PROPIOAK ETA ATAL LOTESLEEKIKO ZORRAK

2016ko abenduaren 31n kapital soziala, 3.000 eurorena, zati berdinetan harpidetu eta ordaindu zuten Bilboko Udalak eta BFAk, Sozietatea eratzeko unean. Gainera, Bilboko Euskal Museoaren eta Bilboko Berreginen Museoaren subrogazioa gauzatu zenean honako kopuru hauek azaleratu ziren, 2016ko abenduaren 31ko Bilbao Bizkaia Museoak, SLren Egoeraren Balantzean mantentzen direnak:

- Bazkideen beste ekarpen batzuk Ondare Garbian, 276.532 euroren zenbatekoan: desagertutako erakundeen urteko kontuetan erregistraturiko eskubide eta obligazioen arteko balio-aldeei dagozkie.
- Epe luzeko zorra Pasibo ez korrontean, 101.496 euroren zenbatekoduna: 2004 eta 2005eko ekitaldietan sobera jasotako diru-laguntza arruntetan du jatorria, Bilboko Berreginen Museoak itzuli ez zituenak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### A.4 DIRU-LAGUNTZA, DOHAINTZAK ETA BESTELAKO LEGATUAK

Gozamenaren balorazioa eta emaitzetara egoztea, baita kapitaleko eragiketak finantzatzeko jasotako beste laguntza batzuk ere, Egoeraren Balantzeko Ondare Garbiaren “Diru-Laguntza, dohaintza eta legatuak” idazpuruan erregistratzen dira; hona 2016ko ekitaldian izan duen kontu-mugimendua:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SALDOA 16.1.1	ALTAK	SARRERETARA EGOZTEA	BIRSAILK.	SALDOA 16.12. 31
Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak.....	6.929	-	(214)	-	6.715
Bilboko Berreginen Museoa inbertsioak .....	153	50	(30)	(36)	137
Euskal Museoa inbertsioak .....	533	50	(85)	36	534
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.615</b>	<b>100</b>	<b>(329)</b>	<b>-</b>	<b>7.386</b>

#### A.5 USTIAPEN-SARRERAK

Hona hemen Sozietatearen jardueraren ustiapenarekin lotutako Galera eta irabazien kontuko idazpuruen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2016	2015
<b>Negoio zifratik zenbateko garbia</b>	<b>63</b>	<b>61</b>
Museoetan sarrerak eta gidatutako bisitak.....	29	26
Marrazki eskoletako matrikulak .....	28	29
Museoetako dendetako salgaien salmenta.....	6	6
<b>Bestelako ustiaketa sarrerak</b>	<b>1.835</b>	<b>1.817</b>
BFaren diru-laguntza .....	899	899
Bilboko Udalaren diru-laguntza.....	899	899
Museoetako proiektuen deialdirako EAEren diru-laguntza .....	34	17
Bestelako txikiago batzuk .....	3	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.898</b>	<b>1.878</b>

2016ko ekitaldian museoetarako bisitarien kopurua 64.323 bisitarikoa izan da (55.066 Euskal Museora eta 9.257 Bilboko Berreginen Museora), % 26 egin duelarik gora aurreko ekitaldiko bisitarietikiko.



## A.6 LANGILERIA GASTUAK

Hona hemen 2016 eta 2015eko ekitaldietako langile-gastuen xehapena:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2016	2015
Soldatak .....	846	908
Gizarte Segurantzza .....	223	232
Elkarkidetza .....	22	22
Bestelako gizarte gastuak.....	14	6
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.105</b>	<b>1.168</b>

Bilbao Bizkaia Museoak, SLko langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmen kolektiboak agintzen du, 2014ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean dagoenak, langileen ordainsariak eta horiei ezarri beharreko beste zeinahi ordainsari-kontzeptu, Bilboko Udal eta BFAko langileentzat onartzen diren berberak izango direla. Klausula hori ezarrita, Sozietateak 2016ko ekitaldian honakoa ordaindu du:

- Ordainsarien % 1eko igoera, 2015eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.
- Produktibitate-osagarri ez finkagarria, soldata eta ordainsari guztien gainean % 0,8 egin duena.

Gainera, hitzarmen horrek Bilboko Euskal Museotik datozen langileei, osagarri pertsonal modura, subrogazio-datara arte ezargarria zitzaien hitzarmenaren arabera antzintasun-kontzeptuan ordaindutako zenbatekoak aitortzen dizkie, guztira 73.478 euroren zenbatekoa egiten dutenak.

Hona hemen 2016ko ekitaldian plantillak izan duen aldaketa eta egoera, lan-harremanaren arabera:

	Langile kopurua			
	1.1.16	ALTAK	BAJAK	31.12.16
Goi Zuzendaritza.....	1	-	-	1
Lan kontratu mugagabekoak .....	15	1	(1)	15
Aldi baterako lan kontratuduna-erretiro partziala.....	-	1	-	1
Bitarteko aldi baterako lan kontratuduna (zerbitzu eginkizun bidez).....	1	-	-	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>17</b>	<b>2</b>	<b>(1)</b>	<b>18</b>

Bilboko Euskal Museoa eta Bilboko Berreginen Museoa desegin ondoren, fundazio horietako langileak, 11 eta 6 langile hurrenez hurren, Bilbao Bizkaia museoak, SLra subrogatu ziren.

2016ko ekitaldian izaera mugagabeko txandako kontratua gauzatu da Sozietateko langile batek erretiro partziala hartu izanaren ondorioz. 2016ko urtarrilaren 22an administrazio-kontseiluak lanpostuaren betekizunak onartu zituen, langileak hautatzeko enpresa bati lau izangai hautatzeko mandatua eta 2 egunkaritan publikotasuna ematea. Egunkarietako iragarkiek ez zuten enpresa kontratatzailea identifikatzen eta kontratazioak aldi baterako izaera zuela adierazten zen.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Sozietatearen estatutuen 30. artikulua zioen “langileen hautaketa eta lanpostuak betetzea deialdi publiko bidez gauzatuko da eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa ireki sistema baliatuta, non kasu guztietan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio konstituzionalak ez ezik, publikotasuna ere bermatuko den”. Bilbao Bizkaia Museoak, SLk ez ditu lanpostu honen hornidura arautuko duen oinarri-araurik onartu eta kanpoko enpresa izan da izangaiak balioztatzeko bere irizpide teknikoak finkatu dituena; ez dira, gainera, prozesua euskarritzen duen dokumentazioan horietako batzuk bazter uzteko izan diren arrazoiak jasotzen.

Azkenik, hautaketa-enpresak proposaturiko lau izangaiei aurrez aurreko elkarrizketa egin zuten kalifikazio-epaimahai batek, administrazio-kontseiluko 2 kidek eta Sozietatek 2 langilek osatua, eta osotasunean baloraziorik handiena zuen hautagaia proposatu zitzaion Bilbao Bizkaia Museoak, SLko administrazio-kontseiluari; honek, 2016ko ekainaren 21ean, proposamena berretsi zuen.

## A.7 USTIAPEN GASTUAK ETA KONTRATAZIO ANALISIA

Galera eta irabazien kontuaren idazpurren xehapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2016	2015
<b>Hornidurak</b>	<b>110</b>	<b>166</b>
Erakusketa gastuak.....	94	86
Salgaien narriadura.....	(5)	60
Bestelako txikiago batzuk .....	21	20
<b>Bestelako ustiapen gastuak</b>	<b>685</b>	<b>543</b>
Konponketak eta zaintza .....	91	34
Garbiketa .....	52	51
Hornigaiak.....	62	65
Zerbitzu-laguntzaileak.....	114	113
Hezkuntza eta dinamizazioa .....	66	66
Zaintza .....	30	30
Itzulpenak.....	25	6
Marrazketa eskola .....	20	19
BEZ ez kengarria.....	127	105
Bestelako txikiago batzuk .....	98	54
<b>GUZTIRA</b>	<b>795</b>	<b>709</b>

Sozietateak bere jardueraren garapenean batera gauzatzen ditu BEZ deduzitzeko eskubidea ematen duten zerbitzu emateak eta eskubide hori gauzatzeko gaitzen ez dutenak. Kengarriak ez diren euskarritutako kuoten zenbatekoa, 126.687 euro 2016ko ekitaldian, ekitaldiko gastua da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

BEZa kenduta 302.665 euroan esleitutako 4 espedienteko lagin baten bitartez kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu.

XEDEA	Miles de euros						
	ESLEIPEN			EXEK.	AKATSAK		
	PROZED.	DATA	ZENBAT.		2016	A	B
<b>ZERBITZUAK</b>							
1. Museoa dinamizatzeko zerb. (2 urte + 2 luzap.) (*) .....	Irekia	aben-12	133	66			C2,3
2. Laguntza emateko laguntzaileak (1 urte +1 luzapena).....	Irekia	urr-14	91	114	A1,2	B1,2	C1,2,3
3. Segurtasun-zerbitzua (1 urte + 1 luzapena).....	Irekia	mar-15	30	30	A1	B1,2	C2
4. Eraikinak garbitzeko zerbitzua (1 urte + 1 luzapena) .....	Irekia	urt-16	49	41	A1	B1,2	C2
<b>GUZTIRA</b>			<b>303</b>	<b>251</b>			

(\*) Bilboko Berreginen Museoa esleitutako kontratua: egikaritzea aztertu da

AKATSAK	Euroak milakotan	
	ESPED. ZK.	ESLEIPENA
<b>ESPEDIENTEA</b>		
A1 Pleguetan aurreikusitako esleipen irizpideetan akatsak .....	3	170
A2 Hitzarmen sektorialetik eratorri gabeko subrogazioa eskatu da.....	1	91
<b>ESLEIPENA</b>		
B1 Proposamen ekonomikoaren irekiera teknikoaren aurretik .....	3	170
B2 Lehiatzaileei esleipenaren jakinarazpena arrazoitu gabe.....	3	170
<b>EGIKARITZA</b>		
C1 Kontratuaren aldaketak lehia printzipioak urratu ditu .....	1	91
C2 Kontratuaren luzapen tazituak.....	4	303
C3 Ondorengo kontratuak izapidetzean aurrerapen txikiegia .....	2	224



## ALEGAZIOAK

### IRITZIA

#### 1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.

##### PERTSONALA.

2016ko ekitaldiko aipatutako kontratazioari dagokionez, Bilbao Bizkaia Museoak erakundeak beti bete izan ditu estatutuak eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak.

Bilbao Bizkaia Museoak erakundeak pertsona hori kontratatu du langileak aukeratzeko XX enpresaren bidez, aldez aurretik langileak aukeratzeko prozesu horren lizitazioa eginda. Langileak aukeratzeko lizitazio horretan, Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen zuzendaritzak enpresa lizitatzaleei eskatu zien langileak aukeratzeko, Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen estatutuetan jasotako printzipioei jarraituta eta dagokion publizitatea eginda, behar adina bitartekotan (XX enpresak egindako lizitazioaren laburpena erantsi da, eta horrek egiaztatzen du Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen estatutuak bete direla).

Halaber, XX enpresak adierazi eta azaldu digu, arrazoiak emanda, nola bete diren berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak. Erantsita igortzen da:

- XX enpresak egindako lizitazioaren laburpena, egiaztatzen duena Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen estatutuak bete direla.
- Hautagaien balorazioak.

Beste alde batetik A.6 atalean aukeraketa prozeduraren deskribapena egiterakoan, argitaratutako plazea eta bere baldintza Administrazio Kontseiluan onartzearekin hasten dala argitu beharra dugu.

Tribunala Administrazio Kontseiluan izendatua izan zen, Bilboko Udaleko ordezkari bat, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari bat, langilegoaren ordezkaria (ELA sindikatuko ordezkaria), koordinatzailea eta Administrazio kontseiluko idazkaria.<sup>1</sup>

#### 2. KONTRATAZIOA.

2014ko ekitaldian esleitutako laguntzarako laguntzaileen zerbitzu-kontratuari dagokionez, garrantzitsua da nabarmentzea eta arrazoitzea aipatutako irregulartasuna zer arrazoiengatik gertatu den. Data hori bat dator, beste batzuen artean, egun Bilbao Bizkaia Museoak osatzen duten bi museoen bat-egitearekin, baita zerbitzua aldatzea ekarri zuten inguruabar batzuekin ere:

Horietako lehena, garrantzitsuena, Batzar Nagusiek hartutako erabakia izan zen (musika-eskaintza izatea asteko egun guztietan). Horrela, erabaki horrek Bilbao Bizkaia Museoak erakundea behartu zuen Euskal Museoaren instalazioak astelehenetan irekitzera. Horregatik,

<sup>1</sup> Ez da zalantzan jartzen sozietateak egindako hautaketa proposatutako lau izangairen artean, baizik eta Epaitegi honek eskuragarri ez izatea aurkeztutako izangaien balorazioari buruzko agiririk, aintzat harturik, gainera, Sozietatearen Estatutuek bertako langileria hautatzeko duten araudi berezia.



langileen eta azpikontraten txandak guztiz hautsi ziren, eta langile gehiago behar izan dira. Ondorioz, Bilbao Bizkaia Museoak erakundeak egun horietan ireki behar izan du, horrek dakarren aparteko kostuarekin. Hori ezin izan zen lizitazioan aurreikusi.

Bestalde, aurreko argudioa bezain garrantzitsua da Euskal Museoan irisgarritasun-arauak ez betetzeak ekarri zuela Gurutze kalean museorako sarrera bat izatea. Horrek enpresarekiko harremana berriro aldatzera behartu gintuen, eta gastu handiagoa ekarri zuen, baina hori ezinezkoa zen lehen lizitazioan aurreikustea.

Hala ere, dagoeneko egungo lizitazioan zerbitzuaren beharrak jaso dira bere osotasunean.

### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO KONTSIDERAZIOAK**

#### **1. PERTSONALA.**

- Lehen oharrari dagokionez, azpimarratu behar da Bilbao Bizkaia Museoak erakundeak izena emateko eta aldizkarian argitaratzeko baldintza guztiak bete dituela, erantsitako dokumentazioan ikus daitekeen bezala.

Erantsi dira: argitaratzeko arduradunei bidalitako eta jasotako mezu elektronikoak. Horiek adierazten dute dokumentazioa jaso zutela eta argitaratuko zutela.

#### **2. KONTRATAZIOA.**

- Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen zuzendaritzak bere gain hartzen du ekitaldi honetan lizitazioen emaitzak sektore publikoko kontratazioaren plataforman argitaratzeko konpromisoa (izapideak hasi dira).
- Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen zuzendaritzak indarrean sartutako araudi berriari jarraiki kontratazioak egokituko ditu, kontratatzen dituen kanpoko zerbitzuak behar bezala betearazteko (hurrengo administrazio-kontseiluan).
- 2018ko ekitalditik aurrera, Bilbao Bizkaia Museoak erakundeak konpromisoa hartzen du formula zuzena aldatzeko, printzipio horiek betetze aldera.
- Klausula sozialak: 109.999 eurotan lizitatutako zerbitzu-kontratuari dagokionez, hitzarmenean jasota egon ez arren beste kontratazio batean langileak subrogatzea, Bilbao Bizkaia Museoak erakundeak erabaki du baldintza gisa ezartzea langile horien subrogazioa, ikuspuntu soziala kontuan hartuta. Halaber, kontuan hartu du langileek instalazioak eta funtzionamendua ezagutzen dituztela, eta kalitatezko eta kontratu mugagabeko lan-egoera sustatzen saiatu da. Egoera horren proposamenenak ez du inolako araurik hausten, eta, aurrez aipatutako inguruabarrengatik, baldintza hori aldatu da pleguan. Halaber, sindikatuek eskatu dute baldintza hori, Udalarekin eta foru-aldundiarekin izandako bileretan.

Era berean, langileen estatutuaren 44. artikuluari jarraiki, lanpostuak mantendu beharko dira enpresaren ondorengotzan:



- Enpresa baten, lanleku baten edo produkzio-unitate autonomo baten titulartasuna aldatuta ere, horrek, besterik gabe, ez du ekarriko bertako langileekiko lan-harremana iraungitzea; izan ere, enpresaburu berriak aurrekoak lan arloa eta Gizarte Segurantza zela-eta zituen eskubide eta betebeharrak subrogatuko ditu, horien artean direla pentsioen inguruko betebeharrak, betiere, gai horren inguruko araudi berezian esaten dena kontuan izanda. Orokorrean, lagatzaileak babes sozial osagarriaren arloan bereganatutako betebeharrak guztiak subrogatuko ditu enpresaburu berriak.
- Artikulu honetan aurreikusitakoari dagokionez, enpresaren ondorengotza dagoela ulertuko da eskualdatutako erakunde ekonomikoak bere izateko moduari eusten badio, hau da, oinarrizko jarduera ekonomiko bat edo jarduera ekonomiko osagarri bat aurrera eramateko baliabide antolatuei eusten baldin badie.

Horregatik, langileen subrogazio hori eskatuko ez balitz, langileek judizialki eskatu ahalko lukete.

- Gutun-azalak irekitzeko politikari dagokionez, Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen ezarrita dago SPKLTBren 150.2 artikuluan jasotako prozedura. Horrela, beti irekitzen da eskaintza tekniko lehena, eta, txosten tekniko osoa irakurri ondoren, eskaintza ekonomikoa irekitzen da. Egun horretan egindako prozedurak ez zuen araudiaren inolako urraketarik eragin.
- Bilbao Bizkaia Museoak erakundeak izapideak hasi ditu, foru-aldundiaren edo Bilboko Udalaren hornidura-lizitazioei atxikitzeko aukera aztertzeko.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ABREVIATURAS

CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
IIC	Instrucciones Internas de Contratación.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
TRLCSP	Real Decreto Ley 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.







## I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de las Cuentas Anuales de Bilbao Bizkaia Museoak, SL para el ejercicio 2016.

Las Cuentas Anuales del ejercicio 2016 han sido aprobadas por la Junta General de Accionistas de Bilbao Bizkaia Museoak, SL el 27 de abril de 2017.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en materia de personal y de contratación de obras, servicios y suministros. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias por tener incidencia en el fiscalizado.
- Contabilidad: Sometimiento de la documentación financiera presentada a los principios contables que resultan de aplicación. Nuestro trabajo ha consistido en revisar el informe de auditoría llevado a cabo por firma externa, realizando aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.
- El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe III de este Informe.

